



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa aurrera atera dezagun ezinbestekoa da lokal bat izatea, zeina gure sedea izango den, norberak bere bulegoa izango duen eta bizikletak eta garraioa gordetzeko lekuaz gain tailler moduko bat izango den.

Lokalak 250 metro karratu izango ditu, bulegotan, tailerrean, bezeroekin kontaktatzeko postuan, bizikletentzat eta kamioentzat aparkalekuan banatuta. Geografikoki lekurik egokiena Zumaian kokatzea izango litzateke, izan ere, herri honek turista asko izaten ditu oporraldian, eta EAEko beste herriei ondo konektatuta dago.

Zehaztuz, Albak, Amaiak Danelek eta Ibonek izango dute beraien bulegoa, izan ere, hauetako bakoitza sail bateko arduraduna da, eta ondo etorri zatziaieke bulego pertsonal bat kontuak aurrera eramateko. Bulego hauetako bakoitzak mahaia, eserleku pare bat eta ordenagailu bat izango lituzkete, eta norberaren eginkizunaren edota gustuen arabera baliabideak gehitzen joan daitezke.

Lau bulego hauez gain, bizikletak gordetzeko eremu bat beharko genuke, 60 bizikleta inguru. Honetarako, lokalaren atzealdean eremu zabal bat egongo litzateke bizikletak aparkatzeko hauen motaren arabera (elektrikoak, normalak, umeentzako edo remolkearekin). Eremu honetan, nola ez, kaskoak ere gordeko ditugu, bakoitza bere tallaren arabera.

Eremu zabal honen ondoan, bizikletak konpontzeko edota hauen egoera zuzena bermatzeko tailler moduko bat izango genuke, bidegorrian zehar gurpilak zulatzea nahiko gertagarria dela aurreikusten baitugu.

Gure proiektua martxan jartzeko garraio bat izatea derrigorrezkoa da, bidegorrian zehar gertatutako ezustekoak atenditzeko, bizikletak garraiatzeko... Beraz, bizikleten gelaren ondoan, gure kamioia aparkatzeko plaza bat egongo litzateke, gero garraioa bizikleten gelaren atean jarri eta errazago kargatu ahal izateko.

Dena den, lokalera sartu eta lehenengo postua bezeroak hartzekoa izango litzateke, "atención al cliente" bezala ezagutzen dena. Bertan langile bat egongo litzateke lokalera jotzen duten bezeroen zalantzak argitzen eta bidean arte hartu ahal izateko ticketak saltzen.



Norbaitek ticketak aurrez aurre erosi nahi izango ez balitu, web orrialde bat ere sortuko dugu. Bertan gure enpresaren inguruko informazioa ikusteko aukeraz gain, ticketak erosteko edota lehendik erreserbatzeko posibilitatea eskaintzen dugu. Orrialde honetan gure sare sozialetarako esteka egongo da, Instagramerakoa, alegia, non argazkiak argitaratuko ditugun, hasiera batean gure aurrerapenen ingururuan, eta gero berriak edota bezeroen argazkiak. Web orri hau sail desberdinetan banatuko genuke. Alde batetik, aurkezpen moduan, nor garen azalduko genuke, zein den gure helburua eta nola egiten dugun lan. Bestalde, gure zerbitzuak erosteko saila egongo litzateke, bidearen arabera prezioak zehaztuta. Azkenik, gure bezeroak izan direnei erreseinak egiteko aukerak emango dizkiegu, hobekiuntzak egin ahal izateko. Hau dela eta, Web orriak honetarako sail bat izango luke bidean parte hartu nahi dutenei erabakitzen laguntzeko.

